

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Online bidezko ikastaro batek Navarro Villoslada BHIko Batxilergoko ikasleei prestakuntza emango die Ekonomia arloan

Iruñeko ikastetxeko Batxilergoko lehen mailako testuliburua ordezkatu du

Lunes, 16 de enero de 2012

Online bidezko ikastaro batek Iruñeko Villoslada Navarro Bigarren Hezkuntzako Institutuko lehen mailako ikasleen Ekonomiarako Sarreraren testuliburua ordezkatu du. Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado-k prentsaurreko bat eskaini du ekimen hau aurkezteko eta, harekin batera, "Economía 2.0" ikastaroaren irakasle eta egile Maite Barneto izan da

Iribasen aburuz, "jarduera.mota hauek profesionalen prestakuntza aberasteaz gain, ikasleen mesederako ere badira".

["Economía 2.0"](#) hamar gaik osatzen dute, hiztegi ekonomikoa batez gain, eta aurkezpen bat, agenda, loturak eta bisiten kontagailu bat ere baditu. Ikastaroa Google Site plataformaren gainean prestatu da, eta testua 2.0 web-ean oinarritutako baliabideekin nahasten da, hau da, Internet-en bertan eskura dauden aplikazioetan.

Ikastaroaren helburua ekonomiaren irakaskuntza-ikasketako prozesua material-mota horien bidez erraztea da, jende gaztearen hizkuntzatik hurbilago dagoena, "mundu digitalean jaioak" deitutakoetatik: bideoak, grafiko elkarreragileak, infografiak, gurutzegramak, binetak, podcast-ak, test-ak...

Gainera, google plataformak eskaintzen duen malgutasunari esker, ikastaroa etengabe egunera daiteke, ia era automatikoan aldagai ekonomiko ezberdinei buruzko informazio berriena sartuz.



Ikasleak.